

ZIBURUKO ETXEBERRIREN ADITZA DELA ETA

Patxi ALTUNA

Aurkeztu direnetarik bi txostenek euskal aditza dute gaia. Ziburuko Etxeberriren lana aztertzean bereziki ukitu nauen bizpahiru puntu jorratu nahi dut agerpen honetan. Ez dira denak berriak, noski, bakarren bat bai, ordea, enerzat bederen. Lanaren mugak ez xitzearren, guztiz laburkiro mintzatuko naiz.

1. Gauza jakina da antzineko euskal idazleek ez zutela pasiva delakoa guk gaur bezala, hegoaldekoak bezala bederen, egiten. Hizkuntza erromani-koetan hala deritzanari deritzat nik ere hemen pasiva, ez etorri *naiz* edota *orraztu naiz* diogunean darabilgunari, noski. Mendebareko euskaldunen artean ez luke gaur inork, nik uste, honako gaztelaniazko esaldi hau «he sido enviado» euskaraz honela itzuliko: *bidali naiz edo bialdu naiz*, baizik gehienez: *Bialdua izan naiz*. Hamasei eta hamazazpigarren mendeetako idazleek, aldiz, lehena esan ohi zuten komunzki. Hauen antzeko esapideak¹ *Kboroatu ciñen* (v. 879), *offensatcen naicenean* (v. 903), *errecibituko dela* (v. 1341), *altzhatu cen* (v. 1343), *diradela bialdu* (v. 1828), guztiak Ziburuko Etxeberriren Manual Devotionezcoa liburutik jalkiak, pasivak dira bete betean eta ez dute zerrikusirik lehen aipatu dudan *orraztu naiz* diogunean aditzera ematen dugunarekin. Etxeparegan ere ageri dira horrelako pasivak: *Nola ycán redemitu haren odol saynduyaz* (I,42). Etxeberri gan pasiva delako horren eredu bikaina dugu, San Mateoren «Multi sunt vocati, pauci vero electi» (22,14) hora itzultzen duenean. Egia esan, horrako hori ez da agian Itun Berriko latinez pasiva berez, *sum perpausa deritzana baizik*², baina Etxeberrik pasiva bailitza, nahiz presentekoa, ematen digu; eta adizkiak

1. Ziburuko Etxeberrik ez zuen burua nekatu bere poemaren (*Manual Devotionezcoa odo esperen oren oro escuetan erabilltceco liburutchoa*, Bordelen, 1669) bertsoak kontatzen eta ondoan zenbakirik ipintzen. Lanean aipatzen ditudan bertsoen numerazioa neronek antolatu dudan Edizio Kritikoan izango duena da; laster agertuko da Euskaltzaindiaren *Euskararen Lekukoak* deritzan bilduman. Poemaren lehen zatia bakarrik, ordea; hots, 3814 bertso.

2. Griegoz datorren gisan ere ez da pasiva, *sum perpausa baizik, si in kletoi* bait dio.

denboraz pixka bat aldatzen dituelarik, perpaus nagusiaren adizkia lehen urrunekoa bait da, eta mendeko perpaus konpletiva gisa sarturik, honela dio: *Hartaracotz San Mathiu eguiaz cen mintçatu / Hanitz deitcen cela, bañan guti cela hautatu* (v. 2548). Azpiko egituran hau datza, dudarik gabe: *Hanitz deitcen da, bañan guti da hautatu*.

2. Euskal aditzaren pasivotasunaren aldekoek beti ipini izan dute agerian *nik esana, borrek asmatua, guk ikasia* eta horien antzekoetan nabari den balio pasivoa. Ezin ahantz, haatik, mugatzalea duten horrelako partizipoak aktivoak ere izan daitezkeela, behiala izan zuten bizitasuna –aski da antzineko idazleek zein sarri darabilten ikustea– gero galduxea dutela badi-rudi ere. Hori dela bide, honako perpaus hauek *O fortuna galdua* (v. 2505) edo *gaitz bandiac hartua* (v. 241), Etxeberrirenak biak, guztiz engainagarri gertatzen dira; bigarrenak, izan ere, *nik esana* eta abarren kideko delarik eta *gaitz bandiac* horrenbestez pluraleko objetoa ez baizik singularreko ergativoa delarik, bere partizipioa (*hartua*) pasivoa luke («presa de, víctima de»), pasivazaleek diotenez; lehenak, osterak, *galdua* eta *fortuna* ez bait dira biak nominativo, baizik *fortuna* partizipioaren objetoa bait da, aktivoa luke; eta garrantzi handiagokoa dena, honek ez du bere baitan ergativorik, areago ez dezake izan ere azaleko egituran eta perpausa emana dagoen dagoenean, isilik utzia dagoen izenordea *bik* ez, baizik *bi* delarik; egia baldin bada ere, azpi egituran beste honako hau daukala gordea: *fortuna galdu bik*, eta horrenbestez *gaitz bandiac hartua*-ren pareko dela azpi egituran. Halaber da beste hauezaz ere: *Iesus ez sinbetsiac* (v. 1711), *Iesus aithortua* (v. 1863), *Iesus onbetsia* (v. 1906): hiruroن partizipioak aktivoak dira eta hiruretan *Iesus* beroien objetoa. Berebat beste ḥonetan ere: *gu placerac edanac* (v. 2148): izena objetoa da eta partizipioa aktivoa.

3. Aspaldi esan zuen E. Lewy-k instrumentala deritzan kasoaz ez dela Etxepare inoiz baliatzen partizipio pasivoaren *ajente* edo egile delakoa adierazteko, ergativoaz beti baizik. Hala ditugu: *bunec enganaturic* (I, 89), *iangoycuac emanic* (I, 107), *ibaunorrec eguinic* (I, 282), *suyac arrasaturic* (I, 316), *verac ordenatuya* (I, 390), etab. Gorago aipatu dugun harten ageri dena (*baren odol saynduyaz*), beste honetakoa bezalaxe (*Nola vaista redemitu quec odol saynduyaz*, I, 75) benetako instrumentalda da, ez pasivako ajentea (gaztelaniaz «con tu sangre», ez «por», baizik «por Cristo»), beste honek erakusten digunez: *Nori baitu vere odolaz carioqui crrossi* (I, 110). Bada Etxeberrirenak biak ditugu, instrumentalra ere bai, hizkuntza erromanikoen kutsuaz, agian, eta hala irakurtzen dugu: *Iangoicoaz neurthua* (v. 1986), *quecçaz formatuac* (v. 2140) bestelako honen ondoan: *quec arbuiatuac*. Erne azken honi, aski arriskutsua bait da: *Gu gaituc gu quec hambat noizbat arbuiatuac* (v. 2163). Zer esan nahi duen, *guk arbuiatu zuek* ala *zuek arbuiatu gu*, ezin jakin daiteke non eta noren ezpainenetan jarria dagoen kontuan eðuki gabe. Hitz horiek azken Juizioan onek gaiztoei esango omen dizkietenez gero, garbi dago azpi egituran *zuek gu arbuiatu* dagoela. Diodan bidenabar Etxeberri instrumentalra

delakoaz modu aski bitxiz baliatzen dela, *baino kendu eta bigarren konparaburua deritzana emateko erabiltzen bait du: ikus, Eztarriaz beherago sartzen gario khe belga* (v. 2827); *Mereciez guehiago hartgatcue sariac* (v. 2314) eta baita, beste zenbait bertso bezala aski bihurria den honetan ere: *Hartu dituenez are baguizt bandiagoacl/Ustez hemen aurkhituren ituela gozoac* (v. 2513-4) («... (pensabas) que ibas a encontrar tal vez aquí goces aún mayores que los que has recibido ya?»). Latinezko *me iunior* dakar instrumental honek gogora.

4. Euskaldunen artean, baita mugaz haraindikoen artean ere, galdaleta egin bageneza, garbi erakutsiko liguke, ene ustez, gaurko euskaldunik gehienok *Ohoratu beharco dic* (v. 673) eta batikbat *behar dute pagatu* (V. 3700) honela aditzen ditugula: «tendrá que honrar» eta «tienen que pagar».. Dauden bertsoetan, halaz ere, osoro bestelako zentzua dute; hain bestelakoa, non biak pasivak bait dira: «tendrá que ser honrado» eta «tienen que ser premiados». Ikusi batera horrek ezin sinetsizkoa badirudi ere, agerpide nabaria du, lehen pasivaz esana gogoan hartzen badugu. Etxeberrik, izan ere, «ha sido premiado» euskaraz *pagatu da* liokeela esan dugu -baina erne, *pagatu da inor*, ez gero «se ha pagado»! – eta bestalde *behar* sartzen delarik artean, honi laguntzaile iragankorra zor bait zaio, *pagatu da* beste honetara aldarazten du: *pagatu behar du*, zentzu paívola gorderik, jakina: «ha de ser premiado».

5. Etxeparereren pasarte ezagun hura, *Gendec yrrigarri guerta ezquiten* (X,6), Lafonek Schuchardt-ek agertu zuen bezalaxe onartzen du, honako hau erantsiz: «Yrrigarri est construit ici avec un complément à l'actif»³. Etxeberrik ere badu horren antzekorik: Etxeparererenari *irritu* iragankorra zor zaio, ene ustez, aditz hau Lhanderen hiztegian agerí ez bada ere⁴. Bestela esan, *gendec yrrigarri* ezin esango litzateke, *jendeek irritu* gaituzte ezin esan baledi. Bada Etxeberriagan hau dugu: *Hauc lebenago on ciren bicia lucagarri* (v. 2367) eta horrek azpi egiturau hauxe dauka: *bizia luzatzen zuten*. Hori eta gramatika aldetik araezkoagoa den beste hau, *iragan ac abantzgarri* (v. 1646), *-garri* atizkia duen izenak genitivoa daramalarik, ia elkarren buruz buru daude. Baina ezin esan zitekeen ere, agian, *iraganac abantzgarri*. Zergatik? Honen azpi egiturako litzatekeen beste honek, *iraganak abantzi* *ditu*, «ha olvidado las pasadas (apostasías)» esan nahi duelako eta Etxeberriaren bertsokoak, ostera, *iraganak abantzaraziko* dituela esan nahi duelako. Ikus pasarte osoa: *Orduan icanen dire bussu Apostasiac / Iraganen abantzgarri azkenik ethorriac*. Beste pasarte honetan bi formak ditugu elkarren ondoan: *Madarica dadillala penen asmatçaillea / Eta bekhatuac hunen latzqui punitçaillea* (v. 2695), objetoa genitivo gisa emana (*penen*) eta baita kasu pasivoan (*bekhatuac*) ere, *hunen latzqui* artean sartua dagoen arren. Zer esanik ez, *bekhatuak punitzen* *ditu*

3. LAFON, R.: «Notes pour une édition critique et une traduction française des «Linguae Vasconum Primitiae» de Bernard Dechepare», BRSVAP, VIII (1952), or 167.

4. LHANDE, P.: *Dictionnaire basque-français*, PARIS, 1926. Egia esateko, *irritu* badakar bai, *baina birritu*-ren aldaera omen dena eta «se fendiller» esan nahi omen duena; *birri*, «fente».

datzala azken horren azpi egituran. Eta zergatik ez du era berean *penac asmatçaillea* ere esan?, galda dezake edonork. Ez jakin. Hona azkenik bestea, *penen asmatçaillea-ren kidekoa: Eta munduco placeren oñez çapatçaillea* (V. 2308).

6. Etxeberri gan zenbait adjetivok bere mendeko izenari deklinabideko kasu konkretoea ezartzen diola dirudi, latinez bezalaxe. Ez naiz ari, noski, egunoroko *haurraren antzekoa* edo *urez betea* eta horien parekoez; *antzko-* eta *bete-* berez adjetivo soilak diren ere oso dudazkoa da, gainera. Honelako esaldi bitxiak irakur ditzakegu: ... *chucatçatçue beguiac / Eta har contentamendu nequeei egoquiac* (v. 2280). Hori komunzki *nekeei dagozkienak* esan ohi dugu eta Etxeberrik berak ere bai bestetan; *egoki-* adjetivo horrek, bestalde, partizipio ere izan daitekeen susmoa ernatzen digu, gehienetan ukatu egin ohi bada ere, *esanez egon* eta dativo aurreko *-ki-* artizkia besterik ez dela. Iku beste hau ere: *Arimaren podoreac Ifernuko etsaiac / Hagultz punituren ditu gorputzari garaiac* (v. 2640);hots, «El enemigo infernal castigará en gran manera las potencias del alma, superiores al cuerpo» eta hemen ere, lehen bezala, *garai-* adjetivoak dativoan darama izena. Honako beste pasarte hau ere modu beretsuan aditu behar da, ene ustez: *Ecen launac descargatzen ditu bere tragaçac / Ceñen çauriac baitire bercetaric garratçac* (v. 2974), non *bercetaric* (*nondik, alegia*) *garratç-* adjetivoaren baitan bait dago eta *hitzez hitz* hauxe esan nahi bait du: «heridas amargas a partir de (= en comparación con) las restantes». Lafonek horixe bera dio Etxepareren *harik denborazko partikula dela eta* (iku, *Hariqueta dançuteno...*, I, 328): «litt. à partir de ce moment (*haric*, partitif archaïque à valeur d'ablatif du démonstratif de 3^e pers.)»⁵.

7. Bi hitz azkenik geure poetarengan aurkitu dudan zenbait erlativozko perpausez, berez galde hitza den *zein-en* bidez emanik ageri direnez. Ez naiz *zein-* honeñ bereizitasun guztiak agertzen luzatuko, baizik aditzarekin zerrikusia dutenak bakarrak aipatuko. Iku exenplu gisa honako hauak: *Baiña dohatsua, ceña ez baita abusaturen* (v. 1642) eta *Hala ere dohatsua, cein baita salbaturen* (v. 2218); hauetan *ceña* eta *cein*, mugatua eta mugagabea, komunzki *dena* esan ohi dugunaren ordez daude eta latinezko *beatus qui gogorazten* dute ezinbestean. *Baina gauza areago nahasten da, zein-i darraikion mendeko perpausaren aditza iragankorra eta perpaus nagusiarena –lehengo bi bertsoetan esan gabe dagoena, dohatsua da edo duc- iragangaitza denean.* Hala gertatzen da ondoko beste bi hauetan: *Ecen çuburra duc, ceñac bercearen calteazl/ Aprendizcoa eguiten baitu nola bereaz* (vv. 3809-10). Hemen *ceñac* baitu esan du poetak guk *duena* (ez gero *duenak!*) esango genukeenaren ordez; izan ere, *çuburra duc* iragangaitza den arren, *eguiten baitu-ri ceñac* zor zaio. Alferrik da esatea hori bera gertatzen dela. Iku si dudan gizonak *ekarri du* diogunean, erlativozko perpausari *gizona* dagokion arren, *gizonak* *gailentzen* omen delako perpaus nagusiaren aginduz. Ez bait da gauza bera; batean galdera

5. LAFON, R.: «La langue de Bernard Dechepare», BRSVAP, VII (1951), or. 324.

NORK ekarri du? delarik eta bestean, aldiz, *NOR da zuburra?*, bataren aditza iragankorra eta bestearena iragangaitza; eta halaz ere, *ceñac* dio, perpaus nagusiaren aditza gailendu beharrean, mendekoarena nagusi gertatuz. Hori bera ageri da beste honetan ere, baina are garbiago: *Erbo dela ceñac uste baitu Parabisua / Aitcinetic obretara eman gabe escua / Bai halaber bekhatua daguiena munduan / Berdin içanen duela barkhamendu Ceruan* (vv. 829-32). Hona itzulpena bada ezpada: «Que es necio quien espera el paraíso sin antes poner manos a la obra; asimismo (quien piensa que) el que comete pecado en vida obtendrá de igual modo (que quien no lo comete) el perdón en el cielo». Ohar lehenik *uste-k* hor bi gauza esan nahi duela: «esperar» eta «creer» eta horren baitan objeto zuzena (*Parabisua*) daramala, batetik, eta perpaus konpletiva, bestetik; bigarrenik, lehengo bertsoan bezalaxe *ceñac uste baitu* dugula hemen ere, *uste duena -ez duenak-* litzatekeenaren ordez; hirugarrenik, horren ondoan geroko sintagman ez dioela gehiago *ceñac eguiten baitu*, baizik *daguiena*; ez, ordea, bere perpausaren adizkiari (*içanen duela*) legokiokeenez, *daguienac*. Bietako bat aitortu behar, beraz, noraezean: edota inprentako hutseguitea dela eta *daguienac* irakurri behar dela, *daguiena bazterturik*, edota *daguiena* idaztean poetak (*Erbo deus*) *uste duena zeukala tinko buru muineta!* ez, ordea, *erbo dela* perpausaren sintagma sujeto gisa, *ceñac uste baitu* bezala, baizik *içanen duela-ren ergati* o sintagma gisa, *içanen duela* bere aldetik *uste baitu-ren* konpletiva bait da. Laburki esan: *uste duena (ez duenak!)* beste hau bilakatzen da: *ceñac uste baitu (ez ceña!)*.

SUMMARY

1. The so-called *pasiva* in the romance languages was constructed by our classics almost always without *-a izan*: e.g., *Hanitz deitcen cela, bañan guti cela hautatu* (*Manual de devotionezcoa*, v. 2549) («that many were called but only a few were chosen»).
2. That explains that in *Etxeberri de Ziburu behar dute pagatu* (v. 3700) is the passive: «they must be awarded» but not «they must award or pay»; if from that sentence *behar* were omitted, the result would be *pagatu dira*: not for necessity but considering what the writer wanted to express in that verse.
3. Many times expressions like (*nik esana*) and others similar are sighted in favour of the passivity of the Basque verb and it is forgotten that *galdua*, *aithortua*, *edanac* etc. can also be active, as in the following passages of this poet: *O fortuna galdua* (v. 2505) («Oh, you who have lost your destiny»); *Iesus aithortua* (v. 1863) («he who has professed Jesus»); *gu placerac edanac* (v. 2148) («we who have enjoyed pleasures»).
4. Although Dechepare always construes the agent of the supposed passive participle in the ergative, *Etxeberri de Ziburu* uses the ergative as well as the instrumental: *quic arbuiatuac* (v. 2163) and *quetcáz formatuac* (v. 2140). In the same way the instrumental serves here to express the second term of the comparison: *eztarriaz beherago* (v. 2827): *merciez guebiago* (v. 2314).
5. We can also find in *Etxeberri* similar verses to those found in Dechepare: *Gendec Yrrigarri* (X, 6), a construction that has been glossed by Lafon in this way: «un complément à l'actif». In these verses the complement is not an active one but passive, taking the root after *-garri* has been removed as if it were a verb: *bicia lucagarri* (v. 2367); *bekhatuac hunen latzqui punitcaillea* (v. 2695).

6. Some adjectives seem to govern a case, so we can read *nequeei egoquiac* (v. 2280); *gorputzari garaiac* (v. 2640); *bercetaric garratgac* (v. 2975).

7. In relative sentences introduced by *zein-*, if the verb of the subordinate clause is transitive even though the verb of the main sentence is intransitive the following phenomena occurs: what without *zein-* would be *duena* (and not *duenak!*) is transformed into the ergative when it takes *zein-*: *Erbo dela ceñac uste basitu ...* (v. 829), although without *zein-* it would be *Erbo dela uste duena* (no *duenak*).

RESUMEN

1. La llamada *pasiva* de las lenguas romances nuestros clásicos la construían casi siempre sin *-a izan*; p. ej. *Hanitz deitcen cela, bañan guti cela hautatu* (*Manual devotio-nezcoa*, v. 2549) («que muchos eran llamados, pero pocos escogidos»).

2. Ello explica que en *Etxeberri de Ziburu behar dute pagatu* (v. 3700) sea pasiva: «tienen que ser premiados», no «tienen que premiar o pagar»; si de esa frase se omitiera *behar*, la resultante sería *pagatu dira*; no por necesidad, però sí habida cuenta de lo que el escritor ha querido expresar en ese verso.

3. Con frecuencia se invocan *nik esana* y otras semejantes en favor de la pasividad del verbo vasco y se olvida que *galdua*, *aithortua*, *edanac* etc. pueden asimismo ser activos, como en estos pasajes del mismo poeta: *O fortuna galdua* (v. 2505) («Oh tú que has perdido tu destino»); *Iesus aithortua* (v. 1863) («el que ha confesado a Jesús»); *gu placeras edanac* (v. 2148) («nosotros que hemos degustado los placeres»).

4. Si bien Dechepare construye siempre en ergativo el agente del supuesto participio pasivo, *Etxeberri de Ziburu* emplea tanto el ergativo como el instrumental: *quec arbuiatuac* (v. 2163) y *quetcaz formatuac* (v. 2140). De igual modo el instrumental sirve en él para expresar el segundo término de la comparación: *eztarriaz beberago* (v. 2827); *mereciez guehiago* (v. 2314).

5. Existen también en *Etxeberri* versos semajantes a aquél de Dechepare: *Gendec yrrigarri* (X, 6), construcción glosada así por Lafon: «un complément à l'actif». En éstos el complemento es no activo, sino pasivo, tomando la raíz desprovista de *-garri* como si fuera verbo: *bicia lucagarri* (v. 2367); *bekhatuac hunen latzqui punitzailea* (v. 2695).

6. Determinados adjetivos parecen regir un caso; así leemos *nequeei egoquiac* (v. 2280); *gorputzari garaiac* (v. 2640); *bercetaric garratgac* (v. 2975).

7. En oraciones de relativo introducidas por *zein-*, si el verbo de la subordinada es transitivo, aun siendo intransitivo el de la principal, tiene lugar el siguiente fenómeno: lo que sin *zein-* sería *duena* (no *duenak!*) se transforma en ergativo al tomar *zein-*: *Erbo dela ceñac uste basitu...* (v. 829), si bien sin *zein-* sería: *Erbo dela uste duena* (no *duenak*).

RÉSUMÉ

1. Nos écrivains classiques construisaient presque toujours la forme passive des langues romanes sans *-a izan*: *Hanitz deitcen cela, bañan guti cela hautatu* (*Manual Devotionezcoa*, v. 2549) («que beaucoup étaient appelés, mais peu étaient élus»).

2. Cela explique que dans l'oeuvre d'*Etxeberri de Ziburu behar dute pagatu* (v. 3700) soit à la forme passive: «il faut qu'ils soient récompensés»; si on supprimait de cette phrase *behar*, le résultat serait *pagatu dira*, non par besoin, mais oui en tenant compte de ce que l'écrivain a voulu exprimer dans ce vers.

3. On dit fréquemment *nik esana* et d'autres vocables similaires en faveur de la forme passive du verbe basque et on oublie que *galdua*, *aithortua*, *edanac*, etc. peuvent

également être des participes actifs, comme par exemple dans ces vers de ce même poète: *O fortuna galdua* (v. 2505) («Oh toi qui as perdu ta destinée»); *Iesus aithortua* (v. 1863) («Celui qui a reconnu Jésus»); *gu placerac edanac* (v. 2148) («Nous qui avons goûté aux plaisirs»).

4. Bien que Dechepare construise toujours en *ergatif* l'agent du présumé participe passif, Etxeberri de Ziburu emploie aussi bien l'*ergatif* que l'outil: *quel arbusatuac* (v. 2163) et *quelczaz formatuac* (v. 2140). De la même façon l'outil y est employé pour exprimer la deuxième partie de la comparaison: *eztarriaz beherago* (v. 2827); *merciez guebiago* (v. 2314).

5. Il existe aussi dans l'œuvre d'Etxeberri des vers semblables à celui de l'oeuvre de Dechepare: *Gendec yrrigarri* (X, 6), vers dont la construction est ainsi interprétée par Lafon: «Un complément à l'actif». Dans ces derniers, le complément n'est pas actif, mais passif, empruntant la racine sans *-garri* comme si c'était un verbe: *bicia lucagarri* (v. 2367); *bekhatuac hunen latzqui punitcaillea* (v. 2695).

6. Certains adjectifs semblent régir un cas; nous lisons ainsi *nequeei egoquiac* (v. 2280); *gorputcari garaiac* (v. 2640); *bercetaric garratçac* (v. 2975).

7. Dans les subordonnées relatives introduites par *zein*, si le verbe de la proposition subordonnée est un verbe transitif, bien que celui de la principale soit intransitif, le phénomène suivant à lieu: ce qui sans *zein-* serait *duena* (pas *duenak!*) se transforme en *ergatif* en prenant *zein-*: *Erbo dela ceñac uste baitu...*, bien que sans *zein-* cela soit: *Erbo dela uste duena* (pas *duenak!*).